

2023ko Miguel de Unamuno XXIV. Saiakera Saria eskuratu zuen Joxe Manuel Odriozola Lizarribarrek

# 'Sekularizazioa Euskal Herrian'

**2**023ko Miguel de Unamuno XXIV. Saiakera Saria eskuratu zuen Joxe Manuel Odriozola Lizarribarrek *Sekularizazioa Euskal Herrian* izeneko saiakerarekin.

Sekularizazioaren dimentsio guztiak heldu dizkio autoreak, kontua oso konplexua eta adar askotakoa baita. Euskal gizarteak denbora laburrean erlijio-eremuan aldaketa sakona jasan du, eta erlijio katolikoa gizartearen errotutako fenomeno bat izatetik, erlijio-bizipenean interesik gabeko beste gizarte batera igaro gara. Hemen gertatu den metamorfosi horren gainean sakontzeko asmoz, autorearekin izan gara.

–**Nola sortu zen Euskal Herriko sekularizazioaren inguruko lan sakon hau egiteko, eta Miguel de Unamuno XXIV. Saiakera Sarietara bidaltzeko ideia?**

–Alde batetik, aspalditik nengibilen erlijioen inguruko gairen bat jorrazteko asmoarekin. Eta sekularizazioaren gaia interesgarria iruditu zitzaidan. Izan ere, joan den mendearen erdi aldetik hona Euskal Herrian gertatu den 'iraultzarik' handienetakoa, handiena ez bada, herri euskaldunaren fede galera izan da. Euskaldun izateak fededun izatea zekarren berdin: hortik dator 'euskaldun fededun' uztardura.

Beste alde batetik, berriz, Miguel de Unamuno literatur lehiaketara aurkezteko akulua, zera izan zen: erlijioaren inguruko gaiak argitaratzea ez dela batera erazta gaur egun. Erlijioaren gaia ez dago boladan, eta argitaletxe gehienek ez dute interes handirik azaltzen era honetako lanak argitaratzeko.

–**Zure lanean Euskal Herriko sekularizazioaren bilakaeraz mintzo zara. Zer lotu ahal zaio bilakaera hori?**

–Sekularizazioaren faktoreak eta eragileak oso konplexuak dira ezinbestez. Ez dezagun ahantzi gure herrian erabat errotua egon dela mendetan kristau katolikoaren mentalitatea. Mentalitate hori iraultzeko gertatu behar diren aldaketak ez dira nolanaioak. Tradizio sakona bezain luzea izan duen erlijio bat ez da axaleko arrazoiengatik galitzen. Beraz, Euskal Herrian gertatu den industrializazioak, urbanizazioak eta modernizazioak elkarrekin sortu duten kultura berriaren testuinguruan ulertu behar da sekularizazioaren bilakaera. Gero, jakina, kultura zientifikoa errotu dibulgazioak ere izan du eragina. Gure gurasoen kosmobiologia ez du zerikusirik gurearekin.

–Era askotako ideologia laiko

eta kosmobiologia sekularrak hasi dira loratzen gurean. Horiek ote dira errudunak?


–Sekularizazioaren eragina ez da mugatu ideologia eta pentsamendu jakin batzuetara. Azkenean euskal gizartearen sektore guztiak astindu ditu. Jakina, sektore tradizional eta konserbadoreetan ez du gainerakoetan izan duen ondorio erradikalik izan. Baina ideologia sozial eta politikoko guztiak eraldatu ditu alde edo moldez. Laizismoaren inguruko ideologiaren artean izan du noski eraginik handiena, korronte hauen jarrera oso kritikoa delako Eliza katolikorekin eta hark ordezkatzeko duen ororekin. Gainerakoan, krisi erlijiosoaren lurrikarak ez du Espainiako gerra aurreko antitulerikalismo sutsurik sortu, eta gainera, orainoan, erlijio kontuekiko axolagabetasuna gailendu da herriar gehien artean.

–**Modernizazioari ere loturik datorren kontua da?**

–Gorago aipatu dugun bezala, erlijioaren iraupenak eta sustraipean harreman zuzena dute gizartearen nagusitzen diren gizarte egitura, kultura eta ideologiek. Modernizazioaren hari-geratutako aldaketak sakona izan dira azken mende erdi honetan. Bizimodu ekonomikoaren baldintzak izugarri aldatu dira, eta bizimodu materialaren aldaketa horrek bizimodu simbolikoaren eta kulturalaren balioak eta erreferentziak antzardatu ditu. Bizimodu modernoaren informazio eta ezagutza iturriak ez dira gure gurasoen garaikoak; haien mundu-ikuskerak erlijio-sinesmenetan oinarritzen bazen, gurea garapen teknologiko eta ezagutza enpirikoan funtsatzen da neurri batean.

–**Zeuk esana da: "Euskaldunok ez dugu lotura esturik gure guraso eta arbasoengan nagusi zen identitate katoliko zurrin bezain zorrotzarekin".**

–Nik hala uste dut. Gure gurasoen Euskal Herria neurri handi batean erlijio katolikoaren arabera zegoen errotua, Eliza zelako orduko gizartearen arau eta irizpide sozialak eta moralak ezartzen zituen. Batez ere, hori bai, nekazaritzan oinarritzen zuten bizimoduan. Gu ere katolikoak izan ginen gaztetan, kristau fededunak, baina gure belaunaldiaren formazio ideologikoaren eragin handia izan zuen marxismoaren teoriak. Eliza batetik aterata eta beste batean sartu



"Sinesmenen galerak ez du beti kultura erlijiosoaren eragina kimatzen"

omen ginen. Hori zioten behintzat orduko euskal intelektual batzuek (Xabier Lete, Txillardegi...). Nolanahi ere, zurruntasunaren ausia ez da gertatzen ideologia erlijiosoetan soilik, gure orduko identitate marxista ere ez baitzen batera irekia eta malgua.

–**Gaurko panorama da elizak hustu egin direla, baina baitaioak, hiletak, ezkontzak egon badaudela.**

–Bai, kristautasunak fededun praktikanteak galdu egin ditu gurean, baina erlijioarekin ditugun harremanak ez dira erabat eten hainbat erritu eta ohituretan. Mezataria adineko jendea doa nagusiki. Elizak hustu egin dira. Alabaina, Elizarekin lotura duten bataioek, ezkontzek, jautzteez... indarrean diraute

**"Kristautasunak fededun praktikanteak galdu egin ditu gurean, baina erlijioarekin ditugun harremanak ez dira erabat eten"**



**"Sekularizazioak ideologia sozial eta politikoko guztiak eraldatu ditu alde edo moldez"**



nago erabat ados Baumanekin, berak aurreikusi zuena ez dela identitate sozial guztiaren haldaketa gertatu: adibidez, nazio identitatearen artean ez dut nik arrakala handirik sumatzen, gure auzoko estatu nazionalen identitatearen gotortasuna ez horren lekuko. Nolanahi ere, begien bistan dago Euskal Herria nagusitu diren mundu-ikuskeren artean ez dagoela mundu-ikuskerak jainkotiarrik, nahiz eta oraindik erlijioaren eragin sozial eta kultura oso nabarmena izan.

–**Fede kristaua amiltzen ari da, baina esperantzaz begiratu behar zaio etorkizunari?**

–Euskal fededun engeiatuak ezkorrak dira; ez denak, baina batzuk behintzat bai. Euskal Fededun tradizionalak, berriz, itzaropenik ez dute galdu nahi. Fedegabe baten ikuspegitik mintzatu behar banu, esango nuke munduko herrialde garatuetan erlijioaren osasuna ez dela erabatekoa izango, gutxiengo baten identitatea izango dela seguru asko. Besterik da mundu ez garatuan, edo globalizazioaren eragina ahula den herrialdeetan. Izan ere, herrialde hauetan fededun izateko motiboak ez baitira nolanaio agortuko. Erlijioaren iraupenak harreman zuzena dauka bizimodu materialari dagokion iruditeria espiritualarekin. Eta fededun izateko arrazoiak ez dira eraz ahituko mundualdia baldintza sozial negargarrietan egin behar duen jendea dagoen bitartean.

Juanra Madariaga

neurri batean. Gainera, hezkuntza kontuetan ere, ikastetxe erlijiosoaren itzala oraindik oso handia da: praktikanteak ez diren guraso askoren hautua izaten baita ikastetxe erlijiosoaren aldekoa, beren seme-alaben heziketa haien esku utzita. Esan dezagun, bada, sinesmenen galerak ez duela beti kultura erlijiosoaren eragina kimatzen.

–**Zeuk esana da: "Orain ez dago mundu-ikuskerak jainkotiar hegemonikorik". Orain, nor bere kasa aritzen da barruko arima zaintzen eta jainko berriak bilatzeko?**

–Identitate likidoaren teorikoak, Zygmunt Baumanek, zioen egungo gizartearen eta kulturalaren ezaugarri nagusi bat horixe dela: hau da, oraintsu arte nagusi izan diren kontakizun eta identitate sozial eta kolektibo handiak iraungi egin direla. Orain ez dagoela identitate ideologiko sendo eta zurrunik, eta norberak bere sozializazioaren sareetan aukeran dituen nortasun ereduetatik aukeratzeko duela zer izan eta nolakoa izan. Ez